# LLORA CUANDO TE PASE
# Laida Lertxundi

## EXPOSICIÓN
**27 de febrero al 18 de mayo**

SALA DE EXPOSICIONES. PLANTA -2

HORARIO
De martes a domingo: 11:00-20:00h
Viernes, sábados, festivos y víspera de festivo: 11:00-21:00h
Lunes CERRADO

ENTRADA LIBRE

ARTEA ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

Alhóndiga Bilbao
Donde Vive la Cultura
www.alhondigabilbao.com

MEDIOS COLABORADORES
EL CORREO
SER

Los paisajes del sur de California son los protagonistas del cine de Laida Lertxundi: los áridos desiertos y montañas de los alrededores de Los Ángeles, sus moteles de carretera y sus anónimas habitaciones. Localizaciones todas ellas invisibles e inexistentes para la cercana industria de Hollywood.

El origen de sus películas son los lugares. Su trabajo comienza con una serie de visitas durante las cuales documenta cuidadosamente el entorno, anotando lecturas de luz y grabando el sonido ambiental. Estos registros se convertirán posteriormente en la materia prima de sus rodajes. Este acto de observación, de prestar atención al lugar, está en el origen de su práctica como artista.

Más tarde vuelve al mismo paisaje con un grupo de amigos y colaboradores, que no actores, que ocupan estos escenarios en una serie de coreografías del cuerpo delante de la cámara. Adoptan posturas, entran y salen del encuadre, se tumban en el suelo o se sientan en el sofá. A menudo no hacen nada, otras veces se sugiere una historia, una narrativa breve que luego nunca se resuelve. Las imágenes se repiten una y otra vez pero en cada repetición hay una pequeña variación: un nuevo encuadre, una nueva versión del original. El sonido siempre se graba a la vez que la imagen y las canciones se oyen entremezcladas con los ruidos del desierto o el mar que rompe contra la orilla.

En su obra juega con los límites del lenguaje cinematográfico: las imágenes saltan sin continuidad, se oyen los cortes de sonido y el ritmo del montaje es imprevisible. Algunas tomas parecen estirarse en el tiempo mientras que otras desaparecen súbitamente. Son técnicas que nos avisan de que estamos mirando una película y no una representación de otra cosa.

El cine de Laida Lertxundi es un cine intuitivo a la vez que riguroso que se abre al espectador con sorprendente facilidad. Con pocos medios y un lenguaje depurado estos cortometrajes desprenden una emoción sobrecogedora y una rara tranquilidad.

Andy Davies
Comisario de la exposición 'Llora cuando te pase. Laida Lertxundi'

## PLANO DE LA EXPOSICIÓN




1 UTSKOR: EITHER/OR
VIDEOTECA DOMÉSTICA

2 FOOTNOTES TO A HOUSE OF LOVE
MY TEARS ARE DRY
'CRY WHEN IT HAPPENS / LLORA CUANDO TE PASE'
A LAX RIDDLE UNIT
THE ROOM CALLED HEAVEN

3 WE HAD THE EXPERIENCE BUT MISSED THE MEANING

**www.alhondigabilbao.com**


info@alhondigabilbao.com
PLAZA ARRIQUIBAR, 4- 48010 BILBAO
944 014 014




## FOOTNOTES TO A HOUSE OF LOVE
2007. 13 min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

Una cabaña en medio del desierto. Varios jóvenes entran y salen de ella, tiran sus puertas y ventanas, convirtiéndola en un espacio abierto. La dicotomía entre interior/exterior desaparece, la destrucción conduce a la creación, se impone la libertad como radiante forma de vida. La relación entre lo que vemos y lo que permanece fuera de campo, entre imagen y sonido, tiene un carácter puramente natural, orgánico: Laida Lertxundi nunca engaña.
Con 'Footnotes to a House of Love' la cineasta inaugura su ciclo de películas realizadas en Los Ángeles y sus alrededores, y lo hace marcando las constantes (visuales y musicales) que marcarán sus próximos trabajos. Desde este momento, sus pisadas sobre el suelo californiano y la marca que dejarán en el cine experimental americano serán indelebles.



## MY TEARS ARE DRY
2009. 4 min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

En 1966, el cineasta Bruce Baillie realizaba 'All My Life', sencilla, emocionante, poderosa evocación de un tiempo y un espacio eternos, ejecutada en una sola toma: un travelling por una verja que ascendía finalmente hasta el cielo azul, mientras sonaba la música de Ella Fitzgerald. Con 'My Tears Are Dry' Laida Lertxundi homenajea al maestro, proponiendo además un diálogo sonoro entre lo electrónico y lo acústico. Una joven, tumbada en una cama, reproduce y detiene en su cassette un tema de Hoagy Lands al tiempo que otra mujer (quizás a kilómetros de distancia, quizás en la misma habitación) experimenta con las cuerdas de su guitarra. La canción se escucha al fin ininterrumpidamente, y en ese momento se produce una íntima explosión emocional. La luminosidad, atributo clave del cine de Lertxundi, en su estado más conciso y esencial.



## 'CRY WHEN IT HAPPENS / LLORA CUANDO TE PASE'
2010. 14 min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

'Llora Cuando Te Pase' emprende una cálida y serena traslación entre los conceptos de presencia y ausencia. De los jóvenes que pueblan la pantalla en el inicio (dos chicas tumbadas en un sofá primero, dos chicos en un motel después) se pasa a una exploración expansiva de los diferentes paisajes de Los Ángeles. La película contiene la imagen que se ha convertido en icono prematuro de la obra de su autora: el televisor frente a la montaña, un objeto transmisor de la memoria habitando en un espacio natural inolvidable, se trata de un enérgico y extremadamente peculiar ejemplo de cine dentro del cine. En las creaciones de Laida Lertxundi el azul del cielo sigue resplandeciendo y la música (en este caso la generadora de vitalidad y dinamismo 'Little Baby', de The Blue Rondos) continúa sonando incluso al caer la noche.



## A LAX RIDDLE UNIT
2011. 6 min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

Suena 'Love Attack', el apasionado soul de James Carr, en mitad del atardecer. A continuación la cámara recorre en un único plano el apartamento de una joven que ensaya una canción en su teclado, para después lanzarse a su cama, aparentemente abatida. Anochece en la ciudad. 'A Lax Riddle Unit' es una película de estructura cíclica, aunque sus emociones no se repiten. Suponemos que la chica está sufriendo por la soledad o el desamor, y justo entonces se gira hacia nosotros sonriendo, obligándonos a reconsiderar nuestra hipótesis. En realidad, todas las obras de Laida Lertxundi representan sentimientos imposibles de reducir. Incluso en un trabajo que se concentra estrictamente en una experiencia íntima, de aspecto melancólico, no podemos obviar el carácter lúdico de su cine. Sin ir más lejos, el título del film es un anagrama de su propio nombre.



## THE ROOM CALLED HEAVEN
2012. 11min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

Culminación de la primera etapa creativa de Laida Lertxundi, 'The Room Called Heaven' es una nítida y efectiva reflexión sobre la amplitud de la imagen fílmica. Mediante el uso del plano americano y de la profundidad del cuadro, se cuestiona el límite de nuestra mirada y se reivindica la experiencia colectiva. Cada toma recoge varios estímulos, situados uno detrás de otro o entremezclados, como en la parte final.
Elementos recurrentes en el cine de Lertxundi, como las puertas abiertas, el mar y el cielo, aparecen superpuestos, se funden evocando sensaciones que trascienden la existencia terrenal. Al mismo tiempo, se trata de un elogio de la labor artesanal y del componente material del acto creativo. Esta idea se concreta en la propia duración del film: su metraje corresponde exactamente al de un rollo de 16 mm.



## UTSKOR: EITHER/OR
2013. 7.5 min. 16mm en BluRay. Color. Sonido

El cine de Laida Lertxundi sale por vez primera de California para ubicarse –al menos fugazmente- en Nordland, región situada al norte de Noruega. La juventud también parece dejar paso a otras presencias: una madre con dos hijos pequeños, un rebaño de ovejas. Si hasta ahora la relación de la cineasta con el pasado había sido más sensorial que tangible, aquí encontramos referencias explícitas, cargadas además de connotaciones políticas inequívocas y contrapuestas: la voz de Tejero durante el Golpe de Estado del 23-F y la lectura del tratado escrito por Friedrich Engels 'El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado'. 'Utskor: Either/Or' es una película en búsqueda constante. Lertxundi conquista nuevos paisajes, nuevos cielos, considerablemente diferentes a los angelinos, pero los recoge con el mismo aliento vitalista.



## WE HAD THE EXPERIENCE BUT MISSED THE MEANING
2014. 8 min. 2 x 16mm en BluRay. Color. Sonido

La fuente de inspiración primordial de esta obra, primera incursión de Laida Lertxundi en el territorio de la instalación, es el relato del escritor argentino Adolfo Bioy Casares 'Todos los hombres son iguales'. A su vez, el título procede del poema 'The Dry Salvages' de T.S. Eliot. En este nuevo camino, la cineasta adjudica un papel esencial a la palabra. Dos pantallas enfrentadas, el espectador debe elegir, realizar un giro completo para ver una u otra. El diálogo que se genera entre ellas nunca es el mismo, se renueva continuamente (cada una de las dos películas tiene una duración diferente). De ahí que cada visita a la instalación suponga una vivencia única. 'We Had the Experience But Missed the Meaning' es además un viaje en coche por el sur de California. El género road movie observado con la intransferible sensibilidad de Lertxundi.

Sinopsis: Javier H. Estrada



## FOOTNOTES TO A HOUSE OF LOVE

2007. 13 min. 16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

Etxola bat desertuaren erdian. Hainbat gazte sartu eta ateratzen dira bertatik, ateak eta leihoak botatzen dituzte, espazio ireki bihurtzen dute. Barnealde/kanpoaldearen arteko dikotomia desagertzen da, suntsipenak sormena ekartzen du, askatasuna nagusitzen da bizimodu distiratsu gisa. Ikusten dugunaren eta eremutik kanpo dagoenaren artean, irudiaren eta soinuaren artean dagoen harremana erabat naturala da, organikoa: Laida Lertxundik ez du inoiz iruzur egiten.
'Footnotes to a House of Love' lanarekin, zinemagile honek Los Angelesen eta hiri horren inguruan egin zituen filmen zikloari ematen dio hasiera, eta bere hurrengo lanen bereizgarri izango diren ezaugarriak (ikusmen eta musikakoak) nabarmentzen ditu horretarako. Une honetatik aurrera, ezin izango dugu inola ere ezabatu Kaliforniako lurretan egingo dituen urratsak eta zinemagintza esperimental amerikarrean utziko duen aztarna.



## MY TEARS ARE DRY

2009. 4 min. 16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

1966. urtean, Bruce Baillie zinemagileak 'All My Life' egin zuen; lan soila, hunkigarria, betiereko denbora eta espazio baten oroitzapen boteretsua, harraldi bakar batean egina: travelling bat, Ella Fitzgeralden musika entzuten zen bitartean zeru urdineraino igotzen zen burdin hesi batetik. 'My Tears Are Dry' lanaren bidez, Laida Lertxundik gorazarre egiten dio maisuari, eta soinu-elkarrizketa bat proposatzen du alde elektronikoaren eta akustikoaren artean. Neska gazte batek, ohean etzanda, Hoagy Landsen kanta bat erreproduzitzen eta geldiarazten du bere kasetean. Aldi berean, beste emakume batek (beharbada hamaika kilometrotara kokatuta, beharbada gela berean dagoela) saiakuntzak egiten ditu bere gitarraren hariekin. Azkenean, kanta etenik gabe entzuten da, eta une horretan emoziozko eztanda intimo bat antzematen da. Argitasuna, Lertxundiren zinemagintzaren giltzarria, inoiz baino labur eta funtsezkoago.



## 'CRY WHEN IT HAPPENS / LLORA CUANDO TE PASE'

2010. 14 min. 16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

'Llora Cuando Te Pase' lanak bero eta baretasunez lekualdatzen ditu presentzia eta absentzia kontzeptuak. Hasieran, gazteek betetzen dute pantaila (lehenik, bi neskak, besaulki batean etzanda; gero, bi mutilek, motel batean). Horren ondoren, Los Angeles hiriko hainbat paisaia zabal ikertzen hasten da. Film honetan, egilearen obraren ikono goiztiar bilakatu den irudia agertzen da: telebista mendiaren aurrean, oroimena igortzen duen objektua espazio natural ahaztezin batean kokatuta. Zinemaren barneko zinemaren adibide bizkor eta oso bitxi bat da hori. Laida Lertxundiren sorkuntza-lanetan, zeruaren urdinak distira egiten eta musikak soinu egiten jarraitzen du (kasu honetan, bizitasuna eta dinamismoa sortzen dituen The Blue Rondosen 'Little Baby' kantak), baita ilundu ondoren ere.



## A LAX RIDDLE UNIT

2011. 6 min. 16 mm. BluRay-n. koloretan. Soinua

James Carr-en 'Love Attack' soul kartsua entzuten da, arratsaren erdian. Gero, kamerak neska gazte baten apartamentua jasotzen idu plano bakar batean. Gazteak kanta bat entseatzen du teklatuan, eta, gero, itxuraz abailduta, ohera botatzen du bere burua.
Ilunabarra da hirian. 'A Lax Riddle Unit' filmak egitura ziklikoa du, baina emozioak ez dira errepikatzen. Neska sufritzen ari dela pentsatzen dugu, bakardadeak edo desamodioak jota dagoela; eta, orduantxe, guganantz biratzen du burua, irribarrez, eta, hortaz, berriz aztertu behar dugu gure hipotesia. Egia esan, Laida Lertxundiren lan guztiek ezin menderatuzko sentimenduak irudikatzen dituzte. Esperientzia intimo bat hertsi-hertsian lantzen duen eta itxura malenkoniatsua duen lana izan arren, ezin dugu alde batera utzi bere zinemagintzaren izaera ludikoa. Hain zuzen ere, filmaren izenburua bere izenaren anagrama da.



## THE ROOM CALLED HEAVEN

2012. 11 min. 16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

Laida Lertxundiren lehen sormen-aldiaren gailurra da 'The Room Called Heaven'. Hausnarketa garbia eta eraginkorra da filmeko irudiaren zabaltasunari buruz. Plano amerikarra eta koadroaren sakonera erabiliz, gure begiradaren muga zalantzan jarri, eta esperientzia kolektiboa aldarrikatzen da. Harraldi bakoitzean hainbat estimulu jasotzen dira, bata bestearen atzean jarrita edo nahastuta, azken zatian bezala.
Lertxundiren zinemagintzan behin eta berriz agertzen diren osagaiak –hala nola, ate irekiak, itsasoa eta zerua– gainjarrita azaltzen dira, urtu egiten dira, lurreko existentziatik harantz doazen sentipenak gogora ekarriz. Aldi berean, artisautza-lanaren eta sormenaren osagai materialaren gorazarrea da. Ideia hori filmak duen iraupenean bertan gauzatzen da: 16 mm doi-doi dituen argazki-filmak duen metrajearekin egokitzen da.




## UTSKOR: EITHER/OR

2013. 7,5 min. 16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

Laida Lertxundiren zinemagintza lehen aldiz ateratzen da Kaliforniatik, eta Norvegiako iparraldera jotzen du, Nordland eskualdera –irtenaldi laburra bada ere. Gaztaroak ere beste batzuei ematen die bide: bi seme-alaba txiki dituen amari, artaldeari. Orain arte zinemagileak iraganarekin izan duen harremana zentzumenezkoa izan da, ukigarria baino gehiago. Hemen, berriz, aipamen esplizituak agertzen dira, konnotazio garbi eta kontrajarriz betetako aipamenak: Tejeroaren ahotsa, otsailaren 23ko estatu-kolpean, eta Friedrich Engelsek idatzitako 'Familiaren, jabego pribatuaren eta Estatuaren jatorria' tratatuaren irakurketa. 'Utskor: Either/Or' etengabeko bilaketan dabilen filma da. Lertxundik paisaia berriak, zeru berriak lortzen ditu, Los Angeleskoak ez bezalakoak nabarmenki, baina bizi-arnasa berberak bultzatuta.



## WE HAD THE EXPERIENCE BUT MISSED THE MEANING

2014. 8 min. 2x16 mm. BluRay-n. Koloretan. Soinua

Laida Lertxundik instalazioaren eremuan egin duen lehenengo sartu-irtena da lan hau, eta Argentinako Adolfo Bioy Casares idazlearen 'Todos los hombres son iguales' kontakizuna da bere inspirazio-iturri nagusia. Bestetik, T.S. Elioten 'The Dry Salvages' poema da izenburuaren sorburua. Bide berri honetan, zinemagileak funtsezko zeregina ematen dio hitzari. Bi pantaila aurrez aurre; ikusleak hautatu egin behar du, bira osoa egin behar du bat edo bestea ikusteko. Haien artean sortzen den elkarrizketa ez da beti bera izaten, etengabe berritzen baita (film bakoitzak iraupen desberdina du). Hortaz, instalazioari egindako ikustaldi bakoitza bizipen bakana izango da. 'We Had the Experience But Missed the Meaning', gainera, Kaliforniako hegoaldetik autoz egindako bidaia bat ere bada. Road movie generoa, Lertxundiren sentsibilitate besterenezinaz behatuta.

Sinopsia: Javier H. Estrada

# LLORA CUANDO TE PASE
# Laida Lertxundi

## ERAKUSKETA
### Otsailaren 27tik maiatzaren 18ra arte

ERAKUSKETA ARETOA. -2 SOLAIRUA

ORDUTEGIA
Asteartea - osteguna: 11:00 - 20:00
Ostiral, larunbat, jaiegun eta jaiegun-bezperetan 11:00 - 21:00
Astelehena: ITXITA

SARRERA DOHAINIK

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

ARTEA ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

Alhóndiga Bilbao
Kultura Bizi Den Tokia
www.alhondigabilbao.com

Kalifornia hegoaldeko paisaiak dira Laida Lertxundiren zinemaren protagonistak: Los Angeles inguruko desertu eta mendi idorrak, errepideko motelak eta logela anonimoak. Lokalizazio horiek guztiak ikusezinak dira eta ez dira existitzen gertu dagoen Hollywoodeko industriarentzat.

Bere pelikulen jatorria tokiak dira. Lana hasierako bisita batzuetan hasi zuen. Horietan, ingurua kontu handiz dokumentatu zuen, eta argi-irakurketak jaso eta giro-soinua grabatu zituen. Erregistro horiek bere grabaketen lehengai bihurtu dira geroago. Behaketa-ekintza hori, tokiari arreta eskaintzea, bere artista-jardunaren jatorrian dago.

Geroago, lagun eta laguntzaile talde batekin (ez dira aktoreak) bueltatzen da paisaia berera, eta agertoki horiek betetzen dituzte kamera aurrean gorputzaren koreografiak eginez. Hainbat gorputz-jarrera hartzen dituzte, enkoadraketan sartu eta bertatik atera, lurrean etzan edo sofan esertzen dira. Sarritan ez dute ezer egiten; beste batzuetan, istorio bat iradokitzen du, konponbiderik ez duen narrazio laburra. Irudiak behin eta berriro errepikatzen dira, baina errepikaketa bakoitzean bariazio txiki bat dago: enkoadraketa berria, jatorrizkoaren bertsio berria. Soinua irudiarekin batera grabatzen da beti, eta abestiak desertuaren edo itsasertzaren kontra jotzen duten olatuen soinuekin tartekatuta entzuten dira.

Bere obran zinema-lengoaiaren mugekin jolas egiten du: irudiek salto egiten dute jarraikortasunik gabe, soinu etenaldiak entzuten dira eta muntaketaren erritmoa ezin da aurreikusi. Eszena batzuk luzatu egiten direla ematen du; beste batzuk, aldiz, bat-batean desagertzen dira. Teknika horiek pelikula bat eta ez beste gauza bat ikusten ari garela ohartarazten digute.

Laida Lertxundiren zinema intuiziozkoa da, baita zorrotza ere, eta erraztasun handiz irekitzen da ikuslearen aurrean. Bitarteko gutxirekin eta araztutako lengoaiarekin, film labur horiek emozio hunkigarria eta lasaitasun arraroa daukate.

Andy Davies
'Llora cuando te pase. Laida Lertxundi' erakusketaren komisarioa

## ERAKUSGELAREN PLANOA




1 UTSKOR: EITHER/OR
ETXEKO BIDEOTEKA

2 FOOTNOTES TO A HOUSE OF LOVE
MY TEARS ARE DRY
'CRY WHEN IT HAPPENS / LLORA CUANDO TE PASE'
A LAX RIDDLE UNIT
THE ROOM CALLED HEAVEN

3 WE HAD THE EXPERIENCE BUT MISSED THE MEANING

www.alhondigabilbao.com

info@alhondigabilbao.com
ARRIQUIBAR PLAZA, 4- 48010 BILBO
944 014 014